

Aurora

Villar Gonzalez

Lamela (Galizia), 1937

***Denda baten jabea. Mar Villa Drogeria eta Mertzeria.
Emakume langilea, Galiziatik etorri eta haren bizitza
propioa eraiki duena.***

***Dueña de un comercio. Mar Villa Droguería y Mercería.
Una mujer trabajadora que vino de Galicia y ha construido
su propia vida.***

**Ikus sintesia bideoan
Ver síntesis en vídeo**



Aurora Galiziako Silleda herrian kokatutako San Miguel de Lamela Parrokian jaio zen, 1937ko abuztuaren 1ean. Hiru anai-arreben tartekoa zen, eta zaharrena zein gazteena gizonetzkoak ziren. 9 urte besterik ez zituela hil zen haien aita. Gertakari horren ostean, ama eta hiru seme-alabak aitaren aldeko aiton-amonon baserria izan zuten bizileku: **«Zer egingo zuen amak hiru hurrekin, bestela»**. Aitaren aldetik, bi anai ziren, eta zaharrena ez zen etxean bizi: **«Ezkondu eta alde egin zuen [...] Orduan, etxean geratu zena nire aita izan zen»**.

Aurorak maitasun handiz gogoratzen ditu aiton-amonak: **«Jende ona zen, inoiz ez ziren haserretzen, beti laztanak egiten zizkiguten, amonak gurekin dantza egiten zuen... Pandereta jotzen zuela esaten zigun, "etorri dantzatzera!"»**. Honako hau ere gogoratzen du: **«Oso lasaiak ziren, aitona Jauna hartzera joaten zen urtean behin eta Jauna hartu baino lehen zera esaten zigun: "Ea etorri hona, dena barkatuko didazue?" Eta guk zer barkatu behar genion? Ez zuen ezer egin eta! Oso fededunak ziren»**.

Aita baserriko lanez arduratzen zen, etxeko lan ezberdinak egiten zituen: **«Guk han ez genuen lan gehiegi egiten, ondo bizi ginen»**. Baserri on bat zen: **«Beti izan genuen jendea guretzat lanean»**.

Hautzaro zoriontsua izan zuen: **«Oso ondo josten zuen emakume bat zegoen, eta nire ama lanera edo beste norabait joaten zenean, harekin uzten ninduen. Ni txikitxo nintzen, eta lurrean barrena topatzen nituen trapu guztiak hartu eta josten ibiltzen nintzen, hori nuen gustuko»**.

Aurorak 14 urtera arte ikasi zuen ikastetxean, eta amaitu zuenean, jostun batek josten irakatsi zion, asko gustatzen baitzitzaion. Gaztaroan, oraindik Galizian zela, denbora asko eskaini zion jostuntzari. Jostuntzaz gain, honako hau aipatzen du: **«Etxeko kontuetan ibiltzen ginen, zerri eta oiloei jaten ematen genien...»**.

21 urterekin galiziar batekin ezkondu zen, eta hona etorri ziren bizitzera: **«Hasieran Egjara, gela batean bizi ginen»**. Aurorak ez zuen gustuko egoera hura: **«Zera esan nion, "ni banoa nire etxera, hemen geratu zaitez bakarrik, ni banoa" [...] Orduan, amak dirua bidali zidan Galiziatik pisuaren sarrera ordaintzeko, eta aurrezki kutxak kreditua eman zidan»**. Urte gutxira, pisu bat erosi zuten Astigarragan: **«Ez zegoelako leku merkeagorik»**.

Hasieran, Aurorak migrazio prozesuetako ohiko zailtasunak jasan zituen, esate baterako, laguntza-sare falta: **«Ez duzu inor ezagutzen, senarra lanera joan eta egun osoan ez da itzultzen eta zuk zure baitan diozu, "eta nik hemen orain, zer?"»**. Gero, zenbait tokitan hasi zen lanean: **«Huracán Fabrikan lan egin dut, Ramón Hernándezentzat lan egin dut, Nenúfarrentzat, eta ondoren, San Marcial drogerian lan egin dut»**. Haren denbora bete zuenean eta aintzat sentituta, errazago ohitu zen familiarengandik urrun hasi zuen bizitza berrira: **«Ondo josten nuenez, aintzat hartzen ninduten»**. Gainera, bizitzeko dirua irabaztea ezinbestekoa zela azpimarratzen du: **«Gela edo etxea ordaindu behar duzu, eta jan egin behar duzu, eta jantzi, eta ohituta zaude dena izatera»**.

Orduan, drogeriako nagusiek Astigarragan bere denda propioa irekitzera animatu zuten, ordura arte ez baitzegoen antzeko ezer: **«Esan zidaten, "Aurora, zergatik ez duzu Astigarragan drogeria bat irekitzen?"»**. Gogoan du lasaitasun handia eman ziotela eta dendarako salgaiekin laguntza eskaini ziotela: **«Zuk salgaiak eraman, eta ondo joaten ez bazaizu, salgaiak daramatzen kamioiak ekarriko ditu, eta lasai, hona bueltan etorri zaitezke lanera»**.

70. hamarkada hasieran ireki zuten denda, eta orain baino gauza gehiago zituzten: **«Ez badituzu mila gauza ez dizute ezer erosten»**. Garai hartan, jendea ohituta zegoen beharrezko guztia herrian bertan erostera. Beraz, drogeriako eta mertzeriako produktuez gain, baserritarrek behar zituzten bestelako produktuak zituzten; baldeak, lurra edota animalientzako janaria, besteak beste: **«Denetik geneukan»**.

Denda Mar Villa Drogeria eta Mertzeria izenpean ireki zuten: **«Senarra Martínez deitzen zen, eta ni Villar»**. Aurrerago, arropa saltzen hasi ziren, eta dendaren izaera zein izena aldatu behar izan zituzten, gaur egun Aurora Villar Ehungintza izenez ezagutua.

Hasieran, aipatutako denda ireki zuten lokala besterik ez zuten, baina ondoren, ondoko lokala ere erosi zuten: **«Denda beti egon da nire izenean»**. Egun eta gau egiten zuen lan: **«Dendatik ateratzen zen salgai oro konpontzen nuen [...] Egunez dendan lan egiten nuen eta gauetz josi»**. Bizitza osoa lanean igaro du: **«Ez dut inoiz aisirako denborarik izan, ez naiz inoiz oporretara joan»**. Etxeari buruz, honako hau aipatzen du: **«Etxeko lanak denbora nuenean egiten nituen»**.

Alaba bat izan zuen: **«Eta ez ditut gehiago izan ezin izan dudalako, ez nuelako dirurik ez zaintzeko denborarik»**. Alaba txikia zenean, eskolara joaten zen: **«Eta ondoren, ba hemen, nirekin [...] Haur bat zen, zer egingo zuen ba, ikasi»**.

Aurorak egun oraindik bere dendan jarraitzen du lanean: **«Igande eta jaiegunetan ere lan egiten nuen [...] Nire adinera iristen zarenean, esaten duzu, "hainbeste esfortzuz ez du merezi"»**. Orain, denda saldu edo alokatu nahi luke: **«Gauzak orain oso gaizki baitaude, lehen baino okerrago»**.

Haren burua langile eta familiarteko gisa definitzen du: **«Bizitza osoa eskaini diot etxeari, familiari eta lanari, beste ezeri ez»**. Haren herriari buruz hitz egiten duenean begiak malkoz betetzen zaizkio: **«Behin edo behin joan naiz, baina gutxitan [...] Niri Galiziak erakartzen nau, alde batetik erakarri egiten nau, eta bestetik diot, "zein ondo bizi izan garen txikitan"»**.

Aurora nació en San Miguel de Lamela, una parroquia ubicada en la localidad de Silleda (Galicia), el 1 de agosto de 1937. Era la mediana de tres hermanos, y tanto el pequeño como el mayor eran hombres. Su padre falleció cuando ella tenía tan solo 9 años. Tras este suceso, tanto su madre como los tres hermanas y hermanos se quedaron a vivir en el caserío de los abuelos paternos: **«Fíjate qué iba a hacer mi madre con tres niños sino»**. Por parte del padre, eran dos hermanos y el mayor no vivía en casa: **«Se casó y se fue [...] Entonces el que se quedó en casa fue mi padre»**.

Aurora tiene muy buen recuerdo de su abuela y su abuelo: **«Eran muy buenos, nunca los veías enfadados, siempre acariciándonos, la abuela bailaba con nosotros, nos tocaba la pandereta y decía, "¡venid a bailar!"»**. También recuerda lo siguiente: **«Eran muy tranquilos, mi abuelo iba a comulgar una vez al año y antes de ir a comulgar decía: "A ver venid para aquí, ¿me perdonáis todo?" Y ¿cómo le vamos a perdonar? ¡Si no ha hecho nada! Eran muy religiosos»**.

Su padre se dedicaba a trabajar en el caserío, hacía diferentes tareas de la casa: **«Nosotras allí no trabajábamos mucho, vivíamos bien»**. Era un buen caserío: **«Siempre tuvimos gente trabajando para nosotros»**.

Tuvo una infancia feliz: **«Había una señora que cosía muy bien, y mi madre cuando iba a trabajar o a algún sitio me dejaba con ella. Yo era pequeñita y cogía todos los trapos que había por el suelo y me dedicaba a coser, eso me gustaba»**.

Aurora estudió hasta los 14 años en el colegio y, cuando acabó, una modista le enseñó a coser, ya que a ella le gustaba mucho. En su adolescencia en Galicia, dedicó mucho tiempo a la costura. Además de la costura, menciona lo siguiente: **«Hacíamos las cosas de casa, les dábamos de comer a los cerdos y a las gallinas...»**.

Con 21 años se casó con un gallego y se vinieron a vivir aquí: **«Primero a Egia, vivíamos en una habitación»**. A Aurora no le gustaba esa situación: **«Le dije, "yo me marchó para mi casa, te quedas ahí tú solo, yo me voy" [...] Entonces, mi madre me mandó dinero de Galicia para que diera la entrada del piso, y la caja de ahorros me dejó el crédito»**. Pocos años después, se compraron un piso en Astigarraga: **«Porque no había sitio más barato»**.

Al principio, Aurora vivió dificultades comunes de los procesos de migración, como puede ser la falta de redes de apoyo: **«No conoces a nadie, el marido se marcha a trabajar y no viene en todo el día, y tú estás pensando, "¿y ahora yo aquí qué?"»**. Luego, empezó a trabajar en diferentes lugares: **«He trabajado para la fábrica de Huracán, he trabajado para Ramón Hernández, he trabajado para Nenúfar y luego he trabajado en la tienda de droguería de San Marcial»**. Al ocupar su tiempo y sentirse valorada, fue más fácil acostumbrarse a su nueva vida lejos de su familia: **«Como cosía bien, pues me valoraban»**. Además, recalca la necesidad de ganar dinero para poder vivir: **«Tienes que pagar la habitación o la casa y tienes que comer y vestirte y tú estás acostumbrada a tener de todo»**.

Entonces, las personas responsables de la droguería le animaron a abrir su propio negocio en Astigarraga, ya que por aquel entonces no había nada parecido: **«Me dijeron, "¿Aurora por qué no pone una droguería en Astigarraga?"»**. Recuerda que le transmitieron tranquilidad y le ofrecieron ayuda con el género de la tienda: **«Tú llevas el género, si por ejemplo no te va bien, el camión que lleva el género lo trae, y no te preocupes que vienes a trabajar para aquí otra vez»**.

Abrieron la tienda a principios de los años 70, y tenían muchas más cosas que ahora: **«Si no tienes mil cosas no te compran nada»**. En aquel entonces, la gente estaba acostumbrada a comprar todo lo que necesitaban en el pueblo. Por lo que, además de productos de droguería y mercería, tenían también todo lo que necesitaban baserritarras; baldes, tierra, comida para los animales, entre otros: **«Teníamos de todo»**.

Abrieron la tienda con el nombre Mar Villa Droguería y Mercería: **«El marido se llamaba Martínez y yo Villar»**. Con el tiempo empezaron a vender ropa y tuvieron que cambiar tanto el carácter como el nombre de la tienda, conocida hoy día como Aurora Villar Textil.

Al principio, solo contaban con el local donde abrieron dicho negocio, y después, con el tiempo, compraron el local contiguo: **«La tienda ha estado siempre puesta a mi nombre»**. Trabajaba de día y de noche: **«Todo el género que salía de la tienda lo arreglaba [...] Yo de día trabajaba en la tienda y de noche cosía»**. Se ha pasado la vida trabajando: **«Yo nunca he tenido tiempo libre, yo nunca he ido de vacaciones»**. Y en cuanto a la casa, menciona lo siguiente: **«Hacía las tareas del hogar cuando tenía tiempo»**.

Tuvo una hija: **«Y no he traído más hijos porque no podía, porque no tenía dinero ni tiempo para cuidarlos»**. Cuando su hija era pequeña iba al colegio: **«Y luego, pues aquí, conmigo [...] Era una niña, que iba a hacer, pues estudiar»**.

Aurora hoy todavía sigue trabajando en su negocio: **«Los domingos y festivos también trabajaba [...] Cuando llegas a mi edad, dices, "no merece la pena tanto sacrificio"»**. Ahora, le gustaría vender o alquilar la tienda: **«Porque ahora están muy mal las cosas, están peor que antes»**.

Se autodefine como trabajadora y de familia: **«Me he dedicado a la casa, a la familia y al trabajo, nada más»**. Cuando habla de su pueblo se le llenan los ojos de lágrimas: **«He ido alguna vez, pero pocas veces [...] A mí me tira Galicia, por una parte me tira y por otra parte digo, "qué bien hemos vivido de pequeños"»**.